

erabakita dauka Euskaltzaindiak. Urte ontarako *irakurgai* edo *nobela* jari zan gai. Sari onen bila irakurgai bakaña etofñ da ta epea amaitu zaigu. Epaileak izendatu bear dira irakurgai bakar ori aztertu dezaten. Epaile izango dira Euskaltzaindiaren aginduz: Eguskitza, Intzagarai ta Ormaetxea. Urngo sarialdirako gaia, euskaltzainak asma bezate.

VIII.—Bähr jaunak egindako *Baschischen Studien*-ren itzulpenez luzaro itz egin da; alegia: Euskaltzaindiak argitaratu bear lukela edo beste edozeñi argitaratzen utzi. Onen erabakia datoñen batzaraldirako laga da, Azkue jaunak zerbait esan naiko du-ta.

IX.—Eguskitza jaunak lan bat irakuñi digu, atzeki *-kin* geitzat arturi. Pozik entzun diogu.

X.—Gero iztegi-lanean jardun degu.

Ta onetaz amaitu da batzaraldia ta beti bezela otoitzez.

Donostian, Eusko-Ikaskuntzaren gela nagusian, 1929'ko Jorailaren 26'an.

Aurko agirian aipatzen diran jaunak bildu dira. Otoitzez asi da batzaraldia.

I.—Schuchardt-Sarirako gaia bear da, ta autuan luzaro itz egin ondoren gai auxe aukeratu da: *Estudio de nombres vascos de todas formas de parentesco*. Lanak, gutxieneko, 20 ofialde bear ditu ta ortik auñerontz ez luze. Epea, datoñen 1930 gañen urteko Jorailaren 30 izango da.

II.—Beste lan aldi bat egin degu iztegian.

Ta beste gairik izan ez da otoitzez amaitu da batzaraldia.
